

BIZI - EGARRIA

*Martillu otska daukat bizia,
olermenetan bamean;
barneko gizonak bizi nai dau,
eriotzaren ostein.*

*Zarata illezkorra jabilkrit,
odol ta azurrez esaten;
aragi guztia bigurtzen jat,
ilko naizela entzuten.*

*Gogoak dirauts gaoiz gaztietan:
bizia nai dot benetan;
illezkor da bizi egarrria,
gizonaren naimenetan.*

*Asmamen au ez da nerea
Egillea daukat deika
burdiñak baño gogorrigo da
naïmena daukat indarka.*

*Illak biztu zitun Egilleak,
gizonak arritu ziran;
ezpaiak sortu ziran lurrean,
gizon aduok bait liran.*

*Gizon guztiak barne-miñetan,
bizi-garrari begira;
bizitza egarrria ezin
barrua otska argira*

*Gizona aske da sinismenetan...,
Aitaren biotz zabala...;
demokrazia dauka Jainkoak,
gizonak onartu aala.*

*Bizia egia da munduan,,
gizonen buruan dantzatan;
biziak zurtu dira lurrean,
amets gorrien loratzan.*

*Bizia maite, bizia atsegin,
eta zer dan ezin jakin;
eskutuan eta bertan dago,
Egille Bera gurekin.*

*Gizona, nora oa billaka,
urik ez dagon tokira?
Bizitza iturria eskutuan,
urietara begira.*

*Egillea, ixilik, dirauzu,
arruko amiltegian;
gudako gizon oiva artzen,
karrazi bizi bizian.*

*Il oro dagoz zuri begira,
justizia itxaroten;
gizon gaiztoen ankerkeria,
odalak ez dau ittoten.*

*Anai zapaldua eta illak,
Jainkoa eskatzen dagoz;
lurrean Kristoa sinistuaz,
ilda ezpataren agoz.*

*Gizonak ezin il betirako,
anaien bizi sendoa;
gaurko iltzailleak autorturen;
ni izan nintzan eroa.*

*Munduak ezin nan asetuta,
gogoaren barrenean;
au da itxaroaren nekea,
biotzaren muin bamean.*

*Katei artean bezela dago,
nere bizia intzirik;
askatasun argia eskatzen,
zeru izarreen dizdira.*

*Nere naiak ez da,4ka azkenik;
Jaungoikoa, zuk, b Jkarrik,
emon al zeinko semeari,
zorion asegarririk.*

*Gizona aundia da bere baitan,
jakituriz, maitasunez;
zerua bear dau poztureko,
gizoneen askatasunez.*

Paulin

IZKI-SOKUAREN ERANTZUNAK

I	D	E	G	U	L	M	I	A	D	T	E	P	L	K	U
R	O	R	B	I	Ñ	X	Z	D	L	J	T	M	O	T	P
I	M	R	E	P	U	L	S	E	E	E	I	A	K	I	E
M	E	O	L	A	X	O	R	O	T	S	B	I	A	U	L
D	X	T	O	G	A	T	E	D	E	T	A	X	R	O	L
S	U	A	M	I	X	I	L	A	L	I	X	A	R	E	T
B	E	N	I	U	J	E	K	L	O	X	A	G	I	K	U
A	R	O	N	E	P	D	Ñ	K	U	B	D	E	A	B	A
I	I	D	I	R	I	N	O	I	T	O	A	J	K	A	G
N	I	B	E	R	A	D	A	T	P	I	X	L	E	T	L

IZKI-SOKUA.—Itz onein artean oraingo bost euskal-abeslariren izenak edo abizenak dagoz. Zaintzuk dira? Ataratzen ze ba'dozuz, ikus azkenengo orrialdean.